

IKASTOLAN

ZIZARRA EGITEN

lazko aldizkariaren bideari jarraituz, aurten Lehen Hezkuntzako txikienek, hau da, 1. eta 2 mailakoek, eta Haur Hezkuntzako handienek, 5 urtekoek, ikasturte honetako lehenengo hiruhilekoan egindako lanaren berri eman nahi dizuegu. Oso bertakoa den langintzan aritu ziren.

Ea zer kontatzen diguten.

Lehenengo galdera:

Zer da ZIZARRA? Zer dakite umeez zizarrari buruz?

Ikastolako haurrak galdera horri erantzun nahian. Hona 5 urteko gelakoek izandako elkarrizketa:

• Norbaitek ba al daki zer den zizarra?

• Sagarra txikitzen duzunean ur hori da zizarra. Sagardoa egiten da zizarrarekin. (aimar)

• Kupela batean sartzen duzu zizarra eta hilabete batzuk itxoin eta sagardoa bihurtzen da. (aimar)

• Bai, hartzen dute makil bat eta hasten dira sagarra zapaltzen hanka hutsik. Makilan daukate traste bat egurrezkoa eta horrekin sagarra txikitzen dute. (aimar)

• Ah! Mendira joan ginela. Makil potoloekin matxakatu genituen sagarrak. Makilak asko pisatzen zuen. (aitana)


• Eta kiskiarekin sagarrak hartu zenituzten. Aurrean dauka punta zorrotza (aitana)

• Sagar txarrak lurrera bota zituzten, belarretara. (aimar)

• Eta eman zuten mosto txikia. Hori da zizarra (aitana)

• Ez, mostoa da gauza bat eta zizarra beste gauza bat. (aimar)

LOTU IZENA IRUDIAREKIN ETA ESAN ZERTARAKO BALIO DUEN TRESNA BAKOITZAK:



• Mostoa dator botilan eta zizarra sagarretik (aimar)
• Baina mostoa ere sagarrarekin egiten da (aitana)

• Sagardoak alkohola dauka eta ezin dugu edan baina mostoak ez. (aitana)

• Ni joan nintzen sagardotegira eta uste nuen mostoa zela baina sagardoa zen. (xabier)

2. Zalantzak argitzen.

Hainbat puntu guztiz argitu gabe gelditu dira oraindik, eta behin eta berriz azaltzen direnak azalpenetan:

- Zizarrak alkohola du/ ez du.
- Zizarrarekin sagardoa egin daiteke / ezin da sagardorik egin
- Zukua / mostoa. Berdin du?
- Zer da tolarea? Eta matxaka? Eta prentsa?

Hona beste hainbat erantzun:

- **Zer da tolarea?**
- Ematen diozu bueltaka palanka bati eta saga rra txikitzen da (beñat)
- (denak ados)
- **Zer da matxaka?**
- Tolaren handia, tornillo haundi bat daukana. Tornilo haundi horrek buelta ematen du eta sagarra gehiago txikitzen da (aimar).
- (denak ados)
- **Zer da prentsa?**
- (ez dakite)
- Mostoa-zizarraren arteko desberdintasunak:
- Mostoa da berdexkagoa eta zizarra marroixka goa (aimar)
- Mostoa berdexkagoa da alkoholik ez daukala ko (aitana)
- Kupel txiki batzuetan sartzen dute 5 minutu eta gero ateratzen dute mostoa bihurtuta. Zizarra lehenengo tolare haundi batean sartzen dute eta dago tranpa bat. Zizarra jeixten da kaja borobil batera, itxidurarekin eta gero basora pasatzen da (aimar).

3. Goazen zizarra egitera. Zenbat, ordea??



4. Azkenean lanera!!!



A ze festa!

Denak lan eta lan, laguntza pixka batekin betiere. Eskerrik asko IGOR IPARRAGIRRERI, behar zituzten tresnak utzi, ekarri eta zizarra egiten laguntzeagatik.